



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urriaren 10a

108. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru lege proposamena, Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren testu bategina onesten duen abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena. Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak eta Patxi Leuza García jaunak aurkeztu dute (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eratzen duena. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, LOMCEren aplikazioak Nafarroako Foru Komunitatearen hezkuntza arloko politika orokorrean izanen dituen ondorioei buruzkoa. Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztua (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da hiri errentamenduei buruzko moratoria luza dezan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesten baitu testuliburuetan Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen dadin. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Beriaingo ikastetxe publikoa dela-eta Parlamentuan onetsitako mozioari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (13. or.).
- Galdera, jakiteko ea larrialdi zerbitzuan zergatik jarraitzen duten faktura egiten osasun txartelik ez daukaten pertsonen, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (13. or.).
- Galdera, haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen titularrak diren toki entitateei 2013-2014 ikasturtean dagozkien zenbatekoak ordaintzeari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Euromontana Sarean sartzeari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuaren 2014ko ekainaren 27ko Osoko Bilkuran jantokirako bekak direla-eta zenbat neurri eta ekintza ezartzeari buruz onetsitako erabakien betetze mailari buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (16. or.).

- Galdera, Goi Erriberan eta Tuterako Erriberan enplegua sortzeko neurri berriak garatzeari buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Barne Zuzendaritza Nagusiak Foruzaingoko zenbait brigada edo unitate berregituratzeko asmoa izateari buruzkoa, Eloy Villanueva Cruz jaunak egina (18. or.).
- Galdera, uholde-arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari dagokienez Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onetsitako zuzentaraua betetze aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa, Victor Rubio Martínez jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Nafarroaren errealitate instituzionala ez errespetatzeagatik Hezkuntza Departamentuak erretiratu-tako liburuen eta ukituriko ikastetxe edo institutuen zerrenda eskatzekoa, Amaya Zarranz Errea andreak egina (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Estatuaren 2015erako aurrekontuen proiektua dela-eta egiten duen balo-razioari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (20. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru lege proposamena, Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren testuategina onesten duen abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olai-zola jaunak eta Patxi Leuza García jaunak Foru Lege proposamena aurkeztu dute, Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren testuategina onesten duen abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun odoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Lege proposamena, Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren testuategina onesten duen abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru lege proposamena, Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren testuategina onesten duen abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena.**

**ZIOEN AZALPENA**

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga, tradizioalki, Nafarroak bereizgarri izan duen tributu bat izan da; bereizgarri, zergapeko egitatearen zehaztapenagatik bainoago, tributu-botere autonomo baten adierazgarri zelako, emaitza gisa izan duena araubide komunetik bereizitako araudi bat, Hitzarmen Ekonomikoan eztabaidarik gabe onartu dena, zeinak kontuan izan baitu, halaber, foru zuzenbide zibil propio bat ere badela, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioan gauzatu, martxoaren 1eko 1/1973 Legearen bidez onetsi baitzen.

Izan da saiorik zerga hori modernizatzeko eta gure garaiko errealitate sozial eta ekonomikora egokitzeko, baina zergaren erroak, hala ere, Foru Diputazioaren 1970eko apirilaren 10eko akordio zaharreraino iristen dira. Hori ez da oztopo, ordea, gogoan izan dezagun akordio hori, de facto, partzialki indargabetu egin zuela Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga Erregulatzeko Arauak, Foru Parlamentuak 1981eko martxoaren 17ko Erabakiaren bidez onetsiak.

Aurreko mendeko laurogeita hamarrek hamarkadako zenbait foru legek eginiko aldaketak gorabehera, martxoaren 14ko 3/2002 Foru Legea onetsi arte ezin da hitz egin oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga benetako eta bakar batez, non banaka zergapetzen baitira dohainezko eskualdatzeak, *inter vivos* izan edo *mortis causa*. Horrela, argia gertatzen da foru lege horren 7. artikulua, zergapeko egitateak biltzen baititu. Bestalde, aipatutako foru legearen seigarren xedapen

gehigarriak, Foruaren Hobekuntzaren 21. artikularekin bat, Nafarroako Gobernuak gaitzen zuen testu bakarrean bateratu zitzaizkion, 2003ko urtarrilaren 1a baino lehenago, zerga honi buruzko indarreko xedapen guztiak, bategiten ziren lege-tes-tuak erregularizatuta, harmonizatuta eta argituta gera zitezkeen.

Horren emaitza izan zen 250/2002 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 16koa, urte horretako abenduaren 31n sartu baitzen indarrean, eta, azkenik, espresuki indargabetu baitzuen Foru Diputazioaren 1970eko apirilaren 10eko akordio aspaldiko hura. Legegintzako foru dekretu hori da, hain zuzen, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari buruz gaur egun dagoen foru arau nagusia.

Kontuan hartuta erreforma fiskal baterako prozesuan gaudela –erreforma integral bat, iragarri zenez–, eta eraginik handiena zuzeneko zergetan izanen duela erreformak, horietan baititu Nafarroak, Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, eskumenik handienak, ezin zaio ezinikusia egin zerga honen garrantziari; hala ere, Nafarroako Gobernuari ez zaio iruditu zerga honi buruzko inolako foru lege proiekturik igorri behar zuenik.

Zorionez, inork ez du defendatzen, beste erki-dego batzuetan gertatzen den moduan, zerga hau kentzea. Erabaki horrek, paradoxikoki, zerga handiagoa ordaindu beharra ekar lezake dohainezko eskualdaketetan; izan ere, zerga hau kenduta, ondare-gehikuntzak, PFEZeko aurrezkiaren zerga-oinarrian sartuko liriteke, hori baita teknikoki aukera bakarra. Eredua izanen litzateke dohainezko eskualdaketa baten onuraduna sozietate bat denekoa; izan ere, eta jakina denez, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga pertsona fisikoentzat da bakarrik, eta, pertsona juridikoen kasuan, dohainezko eskualdaketa baten bidez eskuratutakoa sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarrian sartzen da, gertatu deneko zergaldian.

Horregatik, erabat teknikoak diren aldaketak proposatzen ditugu; esate baterako, autolikidazioen aipamena, ikusita zerga-betebeharra zenbartzeko mekanismo hau zabaltzen ari dela zergaren kudeaketan. Hemen, 28.3 artikulua aldatzea proposatzen da, baina komeni ere komeniko litzateke kasuan kasuko ordezkapenak eta egokitzapenak egitea horrekin lotura duten arauetan.

Arau honetarako proposatzen diren aldaketei dagokienez, bi dira nabarmentzekoak:

a) Batetik, interesdunei –zergadunak, normalean– hamar eguneko epea ematen zaie zuzendu dezaten dohainez eskuratutako ondasun eta esku-bideen balio erreala ez sartu izana aitortpenean edo autolikidazioan.

b) Betebehar formal hori ez betetzea tributuarloko arau-hauste arina izanen dela ezartzea; kuantifikaziorako, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrera jo beharko da, halako moduz non, artikuluetan adierazten ez bada ere, zehapena 6,01 eta 901,52 euroren artean egonen baita.

Alde batera utziko dugu hirugarren aldaketa, azalpen zabalago bat merezi baitu. Arau automatikoa haustean datza; arau automatiko horren arabera, deklaraturako balio handiagoa izanez gero Nafarroako Zerga Ogasunak egiaztatutakoa baino, lehenengoa hartzen zen beti. Arau horrek, logikoa eta Ogasunaren aldekoa itxura batean, desorekak edo zerga-saihesteak eragin ditzake beste zerga batzuetan, eta eragin ere eragiten ditu; bereziki, PFEZean, eta, gehienbat, ondarearen handitzea zerga horretatik salbuetsita dagoen kasuetan. Kasu horietan eta beste batzuetan –ez ditugu zerrendatu behar, jokabide horiek iruzurra ez baina zergak saihesteko baitira eta ez baititugu sustatu nahi–, zergadunaren oso aldekoa litzateke balio oso handia ematea oinordetza edo dohaintza bidez eskuratutako ondasunari, geroagoko eskualdaketa bat gogoan; izan ere, egiten dugun zuzenketa hau ezear, balio egiaztatu hori erabiliko luke ondare-gehikuntza kalkulatzeko, PFEZean balio hori hartzen baita eskuratze-balio gisa.

Horrela, gure proposamena erdibidekoa da, eta Nafarroako Ogasunarentzat kaltegarriak diren jokabide hauek desagerrarazten lagunduko du; batetik, Ogasuna behartzen du betiere egiaztatzea autolikidazioan jarritako balio erreala, eta soilik deklaraturako balioa egiaztatutakoa baino % 50 handiagoa bada, eta ez bestela, baztertuko da lehenbizikoari lehentasuna ematen dion automatismoa. Hori onartzeak, bistan da, zerga horren bidez diru gutxiago biltzea ekar lezake, baina PFEZean konpentsatuko litzateke, soberan konpentsatu ere, hain zuzen dohainez eskuratutako ondasunaren geroagoko eskualdaketan, eta bi bidetatik gertatuko litzateke hori: a) ez litzateke ondare-gutxitze ez-erreal edo fikziozko gertatuko, edota b) bere garaian eskualdatzaileari ondare-gehikuntzagatik PFEZean ezarri ez zitzaion karga geroago ezarriko litzaike eskualdatzearen hartzaileari.

**Artikulu bakarra.** Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren testu bateginaren 28.3 artikulua aldatu eta honela geldituko da:

“Interesdunak behartuak daude, 53. artikulua ezartzen duenez, aitortpena edo autolikidazioa aurkeztera, eta, bertan, adierazi beharko dute zer balio erreal ematen dioten, sortzapenaren egunean, zergapetutako ondare-gehikuntzaren barruan dauden ondasun eta eskubide bakoitzari. Halako-

rik ezean, hamar eguneko epea emanen zaie hutsune hori zuzentzeko. Hori ez egitea tributu-arloko arau-hauste arina izanen da, eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera zehapena izanen du.

Balio hori, egiaztatutako balioa baino handiagoa bada, gailendu egingen da; hala ere, ez da arau hau aplikatuko deklaraturako balioa egiaztatutako balioa baino handiagoa bada % 50 baino neurri handiagoan, eta, kasu horretan, azken hori hartuko da kontuan”.

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eratzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eratzen duen Foru Lege proposamena, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eratzen duen Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamen hori presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta hari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi eguneko dela.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eratzen duena**

### ZIOEN AZALPENEA

Europako demokrazia aurreratuek bereizgarri dute, besteak beste, elkarrizketa sozial iraunkorra instituzionalizatuta edukitzea administrazio publikoen eta ordezkartasun handieneko sindikatuen enpresaburu-erakundearen artean, gizartearen hobekuntza orokorraren aldeko politika komunak taxutu eta parte hartzeko bitarteko gisa.

Guk geuk izan dugun nahiz konpartitu dugun esperientziak erakutsi digu erkidegoen garapen ekonomiko eta sozialerako funts-funtsezkoak direla elkarrizketa- eta akordio-esparruak, gobernuen eta ordezkartasun handieneko solaskide sozialen artekoak. Europar Batasunean, aurrerapauso nabarmenak egin dira elkarrizketa iraunkorreko esparru horren instituzionalizazioan. Halatan, "Europa 2020" Estrategiak barnean hartzen ditu solaskide sozialak, oinarrizko parte bat direlakoan bai kontsultarako bai hark egiten dituen proposamenen taxuketan parte hartzeko. Era berean, eta lehenago, Europar Batzordeak 2002ko ekainaren 26an egindako komunikazioak zenbait orientabide jasotzen ditu elkarrizketa soziala indartzen saiatzeko, halatan gobernantza publikoa, erreforma ekonomikoak eta sozialak Europar Batasunean hobetze aldera [COM(2002) 341, bukaera]. Hala ere, 2003/174/CE Erabakiak "hazkunde eta enplegurako goi-bilera sozial hirualdetarra" ezartzen du (2013an berrikusia, COM (2013) 740, bukaera), eta esaten du elkarrizketa soziala erreforma ekonomiko eta sozialetarako indar eragile bat dela. Lisboako estrategiak agerian uzten du zer zeregin duen Europarentzat giltzarri diren honelako erronkei aurre egitean: trebakuntzen eta gaitasunen hobekuntza, lan-antolamenduaren modernizazioa, aukera-berdintasunaren eta dibertsifikazioaren sustapena, edo bizitza aktiboa luzatzeko politikak

garatzea. Solaskide sozialen arteko negoziazioak modurik onena dira modernizazioarekin eta aldatetaren kudeaketarekin zerikusia duten aferetan aurrerapausoak emateko. Europako elkarrizketa sozialari buruzko 2004ko abuztuaren 12ko komunikazioak azpimarratu egiten du elkarrizketa sozialak hartu duen garrantzia, esparru ekonomiko nahiz sozialean gobernagarritasuna hobetzen lagundu duen aldetik; izan ere, enpresaburu- nahiz sindikatu-erakundeak, enpresa-zuzendaritzak eta enpresetako langileen ordezkariak oso hurbil daude elkarrengandik, eta oso zuzenki izaten dute lantegietan bizitzen den problematikaren berri.

Espainiako Konstituzioak, Atariko Tituluan, 7. artikuluan, xedatzen du langileen sindikatuek eta enpresaburu-elkarteek lagundu egiten dutela berezko dituzten interes ekonomiko eta sozialen defentsan eta sustapenean. Horrez gain, askatasun sindikalerako oinarriko eskubidea aitortzen du, 28. artikuluko lehen lerrokadan, eta elkartegintza-eskubidea ere bai, 22. artikuluan.

Konstituzioak lan-munduan diharduten erakunde sozialei egiten dien aitortena nazioarteko araudian ere islatzen da, hala nola Lanaren Nazioarteko Erakundearen 150. zenbakiko hitzarmenean.

Bestalde, Espainiako Konstituzioak, 9. artikuluko bigarren lerrokadan, botere publikoei agintzen die herritar guztiak bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte har dezaten erraztea.

Askatasun Sindikalari buruzko Lege Organikoak eta Langileen Estatutuak "ordezkaritasun handieneko" izaeraren aitortena arautu egin dute, bai eta izaera hori sindikatu- eta enpresaburu-erakunde jakin batzuei aplikatzea ere, haien ezarpenaren norainokoaren arabera, halatan kualifikatuz administrazio publikoekin duten harremanerako. "Ordezkaritasun handiena" instituzio hori Konstituzio Auzitegiaren doktrinak berretsi eta zedarritu du.

Bestetik, Nafarroan elkarrizketa sozialaren arloan izandako esperientzia izugarri emankorra izan da. Lan Harremanei buruzko Sektorearteko Akordioak, 1995eko ekainaren 8koak, zeina Nafarroako Gobernuak onartuta baitago, halako partaidetza-eredu baterako oinarriak ezarri zituen non, emaitza gisa, erkidegoaren suspertze ekonomiko nabarmen bat eta bertako lan-harremanen modernizazioa erdietsi baitziren. Akordio horren garapenak, eta akordio horretatik eratorritako akordioek ere (besteak beste, Lan Gatazken Ebazte Estrajudizialari buruzko Lanbidearteko Akordioa, Nafarroako Enplegu Zerbitzua eratzeak Akordioa, lau Enplegu Planak eta Garapen Iraunkorrari buruzko Akordio Soziala, jomuga gisa enplegua, laneko osasuna, immigrazioa, lanbide-heziketa eta

abar hartzen dituztenak) markatu egin dute Administrazioaren eta solaskide sozialen arteko harremanen nondik norakoa, eta alderdien arteko ituna eta adostasuna erkidego honetako funtsezko balio izateraino eraman dituzte.

Horren emaitza modura, gaur egun jasaten duguna bezalako krisi ekonomiko larriaren astindupean egonik ere, ordezkarietasun handieneko solaskide sozialek, CEN-Nafarroako Enpresaburu-en Konfederazioak, Unión General de Trabajadores de Navarra-UGTk eta Comisiones Obreras de Navarra-CCOOK, 2013an erabaki zuten haiek berrikusi eta eguneratzea. Agiri horretan, zeina NAOn argitaratu baitzen, adierazi zen borondatea zegoela elkarrizketa sozialeko agertoki berria sustatzeko. Akordioaren sinatzaileek azaldu zuten itun sozialak, azken bi hamarkadetan, emaitza garrantzitsuak eman dituela Nafarroaren garapen ekonomiko eta sozialerako. Baina krisi ekonomikoarekin agertu diren "aldi berriek" eta "arazo berriek" "beharrezko egin dute prozedurak berregokitzea enpresen, langileen eta, oro har, gizartearen beharizan eta eskakizun berrien arabera". Agiri horretatik abiatuta, joan den urteko irailan, Elkarrizketa eta Itun Sozialerako Mahai Iraunkorra eratu zen. Mahai hori kontsultarako organo bat da, zeinaren helburu nagusiak baitira ekonomiaren nahiz lanaren arloko eta arlo sozialeko analisia, gogoeta, negoziazioa eta ituna. Kontsultarako organo gisa eta elkarrizketa eta itun sozialaren esparru berriari egonkortasuna, zuzenbidezko bermea eta erabaki-izaera emateko sortua izan arren, Mahaiaren beraren baitan erabaki zen behar ziren izapideak hastea haren arauketa sustatzeko.

Horrenbestez, baieztatu daiteke ezen, une honetan, beharrezko egiten dela aurrerapauso bat ematea elkarrizketa sozialaren prozesuan. Erregulazio horrek argiro instituzionalizatu behar du aipatutako erakundearen elkarrizketarako eta parte-hartzerako esparrua, sindikatuen eta enpresaburuaren ordezkarietasunetik abiatu behar duen ordezkarietasun bat. Autonomia erkidego batzuk –Extremadura, Gaztela eta León eta Galizia– jada aurreratu dira bide horretan.

Hori guztia dela eta, jotzen dugu haxe dela unea itunaren esparrua arrazionalizatu, modernizatu eta berritzeko, Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua sortuz, haren bitartez aldeentzat argiro instituzionalizatuta egon dadin betebeharren eta eskubideen arloan bakoitzak bere gain hartu beharreko eginkizuna.

## I. TITULUA Xedapen orokorrak

### I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

#### 1. artikulua. Eraketa eta izena

1. Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eratzen da, ordezkartasun handiena duten eragile ekonomiko eta sozialaren eta Nafarroako Foru Administrazioaren topaketa, parte-hartze eta negoziazio instituzionalerako organo goren gisa. Izaera hirualdetarra du, eta une bakoitzean lanaren arloko eskumenak dauzkan Departamentuari atxikiko zaio.

2. Lege honi dagokionez, elkarrizketa soziala honako hau dela ulertuko da: autonomia erkidegoko administrazioaren barruan, haren erakunde publikoetan eta entitate publikoetan langile eta enpresaburu guztiei dagozkien interes orokor, komun, sektorial eta sektoreartekoak sustatu eta defendatzeko lanak eta jarduerak egitea. Bereziki, arlo ekonomikoko, arlo sozialeko, lanaren arloko eta gizartearen bizi-kalitatean eragina duten interes orokorreko arlo guztietako gaien negoziazioa eta ituntzea.

#### 2. artikulua. Izaera

1. Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua da Nafarroako Gobernua eta Foru Komunitatean ordezkartasun handiena duten sindikatuak eta enpresaburu-erakundeak elkarrekin topatzeko erakundearteko organo iraunkorra, elkarrizketa sozialaren adierazgarria eta elkarrizketa hori sustatzekoa, Nafarroaren kohesio sozialerako eta aurrerabide ekonomikorako faktorea den aldetik. Horri dagokionez, gizarte osoari adieraziko zaio elkarrizketa sozialaren balioa eta haren garrantzia.

2. Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluak, bere eginkizunetan, independentzia osoz eta antolamendu juridikoaren menpe jardunen du.

#### 3. artikulua. Eskumenak

Bere eginkizunak betetzeko, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluari honako eskumenak dagozkie:

- a) Elkarrizketa sozialaren xede diren arloak definitzea.
- b) Elkarrizketa sozialarekin lotutako akordioak onestea.
- c) Elkarrizketa sozialerako akordioaren betetzeari eta eraginkortasunari buruzko jarraipena eta ebaluazioa, bai eta haien garapenerako neurriak erabakitzea ere.

d) Elkarrizketa sozialeko akordioak argitara ematea eta ezagutaraztea, bai eta haiekin lotutako gaiak ere; horrek, halere, ez du kaltetuko erkidegoko Administrazioako beste organo batzuek daukaten eskumena.

e) Kontseiluaren arabera elkarrizketa sozialaren arlokoak diren gaietan eragina duten araugintza-jarduketak eta erkidegoko Administrazioaren garrantzi bereziko beste jarduketa batzuk alde aurretik ezagutzea.

f) Europako eskualde politikari, Europar Batasuneko Zuzenbidearen inguruko prestakuntzan eta haren aplikazioan parte-hartzeari, Nafarroaren eta Frantziaren arteko mugaz gaindiko harremanei eta Foru Komunitatearen eta Estatuaren arteko harremanei buruzko gaiak direla-eta Nafarroako Gobernuari eskatutako informazio guztia, elkarrizketa sozialean eragina duena, jasotzea.

g) Erkidegorako interes orokorrekoak diren gaiak buruzko azterlan eta txostenak egitea, beste organo batzuen eskumenak kendu gabe.

h) Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren urtealdi-oroitidazkia onestea.

i) Batzorde espezializatuen eraketa onestea.

j) Bulego teknikoari ematekoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak onesteko proposamena.

k) Elkarrizketa sozialaren garapenerako lagungarri diren gainerako jarduketa guztiak.

## II. KAPITULUA Osaera

#### 4. artikulua. Osaera

1. Honakoek osatuko dute Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua: kontseiluburuak, zeina Nafarroako Gobernuko lehendakaria izanen baita, eta kontseilukideek; hots, lan arloko legedia betearaztearen esparruan eskumena duen Departamentuko kontseilaria eta Nafarroan ordezkartasun handiena duten sindikatu- eta enpresaburu-erakundeen ordezkari bana, maila gorenean.

2. Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluko kideek, salbuespenezko kasuetan, ordezkokoak izendatu ahalko dituzte, aurretik hori idatziz jakinarazita Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluko idazkariari. Salbuespen gisa ere, aztertu beharreko gaiaren arabera, bileretara Kontseiluko kideen aholkulariak joan ahalko dira, aurrez kontseilukideak ados jarrita.

3. Kontseiluak idazkari baten laguntza izanen du. Bileretan parte hartuko du, ahotsarekin baina botorik gabe.

### III. KAPITULUA Organoak eta funtzionamendua

**5. artikulua.** Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluko organoak.

Kontseilu Sozialak honako organoak izanen ditu:

- a) Kontseilua.
- b) Kontseiluburua.
- c) Batzorde iraunkorra.
- d) Batzorde espezializatuak.

**6. artikulua.** Kontseilua.

1. Kontseiluak lege honetako bosgarren artikuluko lehen lerrokadan adierazitako kideak izanen ditu. Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluak, egokiro eratuta egoteko, kide guztiak edo haien ordezkok bertaratu beharko dira. Horien izendapena lege honetako bosgarren artikuluko bigarren lerrokadan xedatuaren arabera izanen da.

2. Kontseiluaren erabakiak aho batez hartuko dira.

3. Kontseiluak bere barne funtzionamendurako erregelamendua landu eta onetsiko du, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

**7. artikulua.** Kontseiluburua.

Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluko burua Nafarroako Gobernuko lehendakaria izanen da, eta kontseilu horren ordezkartza izanen du.

Honakoak dira kontseiluburuaren eginkizunak:

- a) Kontseiluaren bileretarako dei egitea.
- b) Kontseiluaren bileretako buru izatea eta eztabaidak moderatzea.
- c) Kontseiluaren bileren gai-zerrenda finkatzea.
- d) Legeek eta barne funtzionamendurako erregelamenduak ematen dizkioten gainerakoak.

**8. artikulua.** Batzorde iraunkorra.

1. Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluak batzorde iraunkor bat edukiko du, honakoek osatua:

Ian arloko legedia betearaztearen esparruan eskumena duen kontseilaria, zeina batzordeburua izanen baita, Kontseiluko idazkaria eta Nafarroan ordezkartasun handiena duten sindikatu- eta enpresaburu-erakundeen bina ordezkari. Bilereta-

ra Batzorde iraunkorreko kideen laguntzaileak joan ahalko dira, kideak ados jarrita.

2. Bere eginkizunak betetzeko, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluko Batzorde Iraunkorrari honako eskumenak dagozkie:

a) Kontseiluari elkarrizketa sozialaren xede diren gaiak eta elkarrizketa sozialerako akordioen proposamenak aurkeztea.

b) Kontseiluari egitea erkidegorako interes orokorrekoak diren gaiei buruzko azterlan eta txostenak prestatzeko proposamena.

c) Kontseiluari Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren urtealdi-oroitidazkiaren proposamena aurkeztea.

d) Kontseiluari batzorde espezializatuak eratzeko proposamena aurkeztea.

e) Gaiak proposatzea Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren gai zerrendarako.

f) Kontseiluari proposamenak aurkeztea bulego teknikorako giza baliabideen eta baliabide materialen hornikuntzari buruz.

g) Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluko barne funtzionamendurako erregelamenduan finkatzen diren gainerakoak eta Kontseiluak berariaz esleitzen dizkionak.

3. Batzorde Iraunkorraren erabakiak aho batez hartuko dira.

**9. artikulua.**- Batzorde espezializatuak.

Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluak batzorde espezializatuak sortu ahalko ditu, aurrez zehaztutako arloak sustatzeko, barne funtzionamendurako erregelamenduak araututakoaren arabera. Batzorde horiek, halaber, partaidetza parekidea izanen dute.

### IV. KAPITULUA Baliabide teknikoak

**10. artikulua.** Bulego teknikoak.

a) Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluak bulego tekniko bat eduki ahalko du, eta kontseiluak berak proposatuko du hura non kokatu. Bulego horrek bere eginkizunak betetzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak izanen ditu.

b) Bulego teknikoak funtzionalki Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren menpe egonen da; organikoki, berriz, lan arloko legediaren betearazpenaren esparruan eskuduna den Departamentuaren menpe.



c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak behar diren jarduketa guztiak eginen ditu ziurtatze aldera bulego teknikoak giza baliabide eta baliabide material egokiak dituela.

d) Kontseiluak eta Batzorde Iraunkorrak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eskatu ahalko diote behar den dokumentazioa aurkez dezan haiek beren eginkizunak bete ahal izateko, eta haren zerbitzuan diharduten langileek agerraldia egitea, komenigarritzat jotzen denean.

## II. TITULUA

### Parte-hartze instituzionala

#### I. KAPITULUA

##### Xedapen orokorrak

##### 11. artikulua. Xedea.

1. II. titulu honen xedea da Nafarroan ordezkari-tasun handiena duten sindikatu- eta enpresaburu-erakundeek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari parte-hartze instituzionalaren esparrua arautzea, gai ekonomiko eta sozialei eta autonomia erkidegorako interes orokorrekoak diren gai guztiei dagokienez.

2. Parte-hartze instituzional gisa ulertzen da, lege honi dagokionez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren esparruan, ordezkari-tasun handiena duten sindikatu- eta enpresaburu-erakundeek berezko dituzten interesen sustapenerako eta defentsarako lanak eta jarduerak egitea, Askatasun Sindikalari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoko 6. eta 7.1 artikuluetan eta martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen Estatutuaren Testu Bategineko seigarren xedapen gehigarriaren ezarritakoaren arabera.

##### 12. artikulua. Aplikazio esparrua

1. Lege honetan ezarritako parte-hartze instituzionala aplikatzekoa izanen zaie aholkularitza eta parte-hartze organoei, entitate eta erakunde publiko bakoitzaren berriazko araudiaren terminoetan, betiere honako esku-hartze esparruetan:

a) Nafarroako Gobernuaren Administrazioan sartutako entitate eta erakunde publikoak, lan arloko nahiz arlo sozial edo ekonomikoko eskumenak esleituta dituztenak.

b) Horretan sartzen dira honako esparruetan eskumenak dituzten entitate edo erakunde publiko guztiak: lana, enplegua, lanbide heziketa, ekonomia soziala, berdintasun-politikak, lan-merkatuarekin lotutako emigrazioa eta immigrazioa, politika

sozialak eta, oro har, lan arloan edo arlo sozialean garrantzia duen beste edozein gai.

c) Nafarroako Gobernuaren Administrazioan sartutako entitate eta erakunde publikoak, esparru sozioekonomikoko eta foru autonomiaren garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko eskumenak esleituta dituztenak.

Horretan sartzen dira garapen autonomikoan, politika sektorialetan eta politika sozialean eskumenak dituzten entitate eta erakunde publiko guztiak, bai eta, oro har, beren garrantzi sozioekonomikoa dela-eta lege honek arautzen dituen parte-hartze instituzionalerako tresnetara egokitzea komenigarritzat jotzen den beste edozein eskumen dutenak ere.

2. Lege hau ez zaie aplikatuko parte-hartzerako edo negoziazio kolektiborako organo sektoriale horiek okupazio publikoaren esparrukoak direnean, esparru horrek berriazko araubidea izanen baitu.

3. Lege hau ez zaio aplikatuko sektore pribatu-ko negoziazio kolektiborako eskubideari buruzko araudiari; izan ere, berriazko legediak arautuko du sektore hori.

4. Lege honen aplikazio-esparrutik kanpo geratuko dira erkidegoko Administrazioari enplegu publikoarekin lotutako parte-hartze organoak.

##### 13. artikulua. Parte hartzeko irizpideak.

1. Ordezkari-tasun handieneko sindikatu- eta enpresaburu-erakundeek ordezkari-kopurua zehazteko, haien parekotasunaren irizpideari men egingen zaio.

2. Ordezkari-tasun handieneko sindikatu- eta enpresaburu-erakundeek ordezkariak hautatzeko eta kargutik kentzeko, haiek egindako proposamenari men egingen zaio.

3. Ulertuko da ordezkari horiek adierazten dutela ordezkari-tasun handieneko enpresaburu- eta sindikatu-erakundeek kasuko arloan duten jarrera.

## II. KAPITULUA

### Parte-hartze instituzionalaren edukia eta subjektu parte-hartzaileen eskubide eta betebeharrak

14. artikulua.- Parte-hartze instituzionalaren edukia.

1. Parte-hartze instituzionala gauzatzen da ordezkari-tasun handieneko sindikatu- eta enpresaburu-erakundeek ordezkariak parte-hartze organoetan duten presentziaren bitartez.

2. Berariazko araudiaren bidez parte-hartze instituzionaleko eginkizunak esleituta dauzkaten organoek honako eskumenak izanen dituzte, guxtienez ere:

a) Aurretiaz ezagutzea lege-aurreproiektuak edo legeak garatzeko erregelamendu-proiektuak, haien eskumenekoak diren gaietan.

b) Informazioa jasotzea garaturiko plan, programa eta jarduketei buruz.

c) Jarduteko irizpide, gidalerro eta ildo nagusiak proposatzea eta horien prestaketan parte hartzea.

d) Nafarroako Gobernuari proposatzea kasuko parte-hartzearen esparruko gaietan komenigarri deritzeten legegintza-ekimenak edo jarduketa zehatzak.

**15. artikulua.** Parte-hartze instituzionala baliatzearen inguruko eskubide eta betebeharrak.

1. Ordezkaritasun handieneko sindikatu- eta enpresaburu-erakundeen ordezkaritzak fede onaren printzipioari jarraituz beteko ditu parte-hartze instituzionaleko bere eginkizunak.

2. Kasuko organoetan parte-hartze instituzionaleko eginkizunak betetzen dituzten pertsonak honako eskubide eta betebeharrak dauzkate beren zereginetan:

a) Parte-hartze organoen bileretan egotea.

b) Deialdia egin diezaieten eta kasuko informazioa behar den garaietan eta forman jasotzea.

c) Eskueran dauzkaten dokumentuak zaintzea.

d) Bileretan lortzen eta erreserbatu gisa deklaritzen den informazioaren gaineko konfidentzialtasuna errespetatzea, bai eta informazio horrekin zerikusia duten deliberamenduei buruzkoa ere; halaber, informazioa ez erabiltzea soilik berezko dituen xedeetarako.

### III. KAPITULUA Sustapena eta finantzaketa

**16. artikulua.** Sustapena eta finantzaketa

1. Lege honek araututako parte-hartze instituzionala sustatu eta konpentsatzeko, Nafarroako

Foru Komunitateko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak urtero kontusail bat jarriko du, diru-laguntza izendun gisakoa. Kontusail horren xedea izanen dira ordezkaritasun handieneko sindikatu- eta enpresaburu-erakundeak, alde batera utzita erakunde horiek, esparru ekonomiko eta sozialeko interes orokorreko erakunde gisa, beren jarduera sustatzeko jasotzen dituzten diru-laguntzak.

2. Sindikatu- eta enpresaburu-erakundeen ordezkariek organo instituzionaletan izanen duten presentzia doakoa izatea aurreikusten da; hori dela eta, ez dute inongo kalte-ordainik jasoko bertaratzeagatik nahiz gastuak konpentsatzeko.

3. Diru-laguntza izendunaren zenbatekoa urtero aldatuko da kontsumoko prezioen indizea (KPIa) bezala, erkidegoko aurrekontuaren hazkunderaren mugarekin.

**Azken xedapenetan lehenbizikoa.** Lege honek indarra hartzen duenetik hilabeteko epean, Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eratuko da.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Eratzen deneetik sei hilabeteko epean, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluak bere barne funtzionamendurako erregelamendua onetsiko du.

**Azken xedapenetan hirugarrena.** Lege honek indarra hartzen duenetik sei hilabeteko gehieneko epean, hari egokituko zaizkio ordezkaritasun handieneko sindikatu- eta enpresaburu-erakundeek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Orokor eta Instituzionaleko organoetan izanen duten parte-hartze instituzionalari buruzko arauak. Ordu-ra arte, erkidegoko Administrazioaren eta ordezkaritasun handieneko sindikatu- eta enpresaburu-erakundeen arteko akordioek, beren edukian foru lege honek ukitutakoek, beren eragina izaten jarraituko dute.

**Azken xedapenetan laugarrena.** Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatzeko behar diren xedapenak emanen ditu.

**Azken xedapenetan bosgarrena.** Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihar munean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Jabeldura, LOMCEren aplikazioak Nafarroako Foru Komunitatearen hezkuntza arloko politika orokorretan izanen dituen ondorioei buruzkoa.**

*NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkezturiko jabeldura, LOMCEren aplikazioak Nafarroako Foru Komunitatearen hezkuntza arloko politika orokorretan izanen dituen ondorioei buruzkoa.

**2.** Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**JABELDURAREN TESTUA**

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkezten dio Hezkuntzako kontseilari José Iribas jaunari.

Jabeldura, LOMCEren aplikazioak Nafarroako Foru Komunitatearen hezkuntza arloko politika orokorretan dituen ondorioei buruzkoa.

Iruñean, 2014ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

**Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da hiri errentamenduei buruzko moratoria luza dezan.**

*SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita hiri errentamenduei buruzko moratoria luza dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, batzordean eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premia-tzen du beste hamar urtez luza dezan Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen hirugarren xedapen iragankorrek ezarritako moratoria, errenta zaharreko denda eta negozio txikien jarraipena errazte aldera.

Indarrean dagoen Hiri Errentamenduei buruzko 1994ko Legeak moratoria bat ezarri zuen errentamenduei buruzko 1964ko legearen menpeko negozio- eta merkataritza-lokalen errentamendu-kontratuen amaierarako. Hala, 20 urteko moratoria bat ezarri zen, 2015eko urtarrilaren 1ean amaituko dena.

Egun horretan, proposamen honen xedea aurrera ateratzen ez bada behintzat, kontratu haien indarraldia amaituko da, eta horietako denda asko kontratu bat negoziatu beharri aurre egin beharko diote, halako moduz non arrazoizko kontrolik gabeko errenta igoerak izanez gero, negozio horien jarraipena ez litzateke bideragarria izanen; are gehiago, pairatzen ari garena bezalako krisi egoera batean.

Familia izaerako denda edo enpresa horien balizko itxiera kolpe latza izanen litzateke enpleguaren zat herrialde osoan (kalkulatzen da halako 300.000 establezimendu daudela une honetan),

eta ekimen honen bidez ondorio kaltegarri hori zuzendu nahi da.

Hori dela eta, kontuan hartuta legea moratoria-rik gabe aplikatzearen eraginez itxiko liratekeen dendak beste hainbeste-edo irekitzea nekez lortuko litzatekeela, uste dugu komenigarria dela Hiri Errentamenduei buruzko Legearen hirugarren xedapen iragankorra aldatu eta moratoria berri bat ezar dadila eskatzea.

Hori dela-eta, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamendua- ren babesean, ondoko erabaki proposamena aur-keztu du, Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Industria eta Enplegu Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gober- nua premia-tzen du, gure hirietako merkataritza- sarearen suntsiketa premiagabea eta enplegu galera saiheste aldera, alda dezan Hiri Errenta- menduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legea- ren hirugarren xedapen iragankorra, 1985eko maiatzaren 9a baino lehenago sinaturiko negozio- lokalen errentamendu-kontratuei dagokienez, xedapen horretan aurreikusten den moratoria 2025eko urtarrilaren 1era arte luzatze aldera, eta, halaber, errentak eguneratu ditzan egokitzat jotzen den formularen bitartez, lokal horien jabeei kalte larriak saiheste aldera.

Mozio hau onetsiz gero, Europako Parlamen- tuari jakinarazi beharko zaio.

Iruñean, 2014ko urriaren 3an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

---

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesten baitu testuliburuetan Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen dadin.**

**ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA**

2014ko urriaren 6an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak babesten du Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen dadin

Nafarroako hezkuntza sisteman erabilitako testuliburu-  
buruetan.”

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Beriaingo ikastetxe publikoa dela-eta Parlamentuan onetsitako mozioari buruzkoa.**

*NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez irazabal andreak aurkeztutako galdera, Beriaingo ikastetxe publikoa dela-eta Parlamentuan onetsitako mozioari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunak Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zure departamentuak zer urrats egin ditu legebiltzar honek Beriaingo ikastetxe publikoari buruz 2014ko apirilaren 8an onetsitako mozia betetzeko?

Iruñean, 2014ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

**Galdera, jakiteko ea larrialdi zerbitzuan zergatik jarraitzen duten faktura egiten osasun txartelik ez daukaten pertsonen.**

*ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea larrialdi zerbitzuan zergatik jarrai-

tzen duten faktura egiten osasun txartelik ez daukaten pertsonen.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilari Vera andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Larrialdi zerbitzuan zergatik jarraitzen dute faktura egiten osasun txartelik ez daukaten pertsonen?

Iruñean, 2014ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

## **Galdera, haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen titularrak diren toki entitateei 2013-2014 ikasturtean dagozkien zenbatekoak ordaintzeari buruzkoa.**

**MANU AYERDI OLAIZAOLA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen titularrak diren toki entitateei 2013-2014 ikasturtean dagozkien zenbatekoak ordaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako ahozko galdera hau egin du, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordean izapidetzeko:

Iragan udaberrian, Otik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen titular diren Nafarroako toki entitate ia-ia guztiek erabat errefusatu zuten Hezkuntza Departamentuak ikastetxe horiek 2013-2014 ikasturtean finantzatzeko planteatutako hitzarmen proposamena. Proposamen horretan, Departamentuak aldebakartasunez murrizten zuen abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Aginduaren arabera zegokion ekarpena, eta ekarpen horren % 70 jartzeko konpromisoa hartzen zuen soilik; hartara, familiek edo toki entitateek berek egin behar zioten aurre gainontzekoari.

Horren ondorioz, uda honetan indarrean sartu da 16/2014 Foru Legea, egoera hori berriz ere gertatzea eragozteko finantzaketa-berme bat ezartzera etorri dena. Foru lege horren artikulua bakarraren arabera, "Nafarroako Gobernuak berari dagokion zatiaren ehuneko ehun ordainduko die udalei ekitaldi ekonomiko bakoitzean, Udal titulartasuneko haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen kudeaketa finantzatzeari buruzko Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Aginduak ezartzen dituen oinarrietan xedatuekin bat".

Bada, 2013-2014 ikasturterako bere ekarpenaren lehen ordainketa egin ostean, eta aipatu foru lege hori indarrean sartu den arren, iragan irailaren 23an, Hezkuntza Departamentuak ikasturte horretarako ekarpenaren gainontzeko zatia erregularizatzeko proposamenak igorri dizkie udal horiei, ehuneko ehunera iritsi gabe segitzen dutenak, ehuneko 70ean gelditzen baitira.

Ukitutako zenbait udalek horri erantzun diote proposatutako zenbatekoa onartuz, baina aipatutako araudiaren arabera zilegitasunez dagokien gainontzeko zenbatekoa erreklamatu.

Hori guztia kontuan hartuta, parlamentari honek ondoko galdera egin nahi du:

• Hezkuntza Departamentuak noiz ordainduko dizkie haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen titularrak diren toki entitateei 2013-2014 ikasturterako dagozkien zenbatekoak, hartara 16/2014 Foru Legean xedatutakoa betez?

Iruñean, 2014ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

## **Galdera, Euromontana Sarean sartzeari buruzkoa.**

### **MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Euromontana Sarean sartzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako ahozko galdera hau egin du, Nafarroako Parlamentuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Batzordean izapidetzeko:

Jada urrun dagoen 2013ko martxoaren 14an, Legebiltzarreko Osoko Bilkurak aho batez onetsi zuen atxiki gabeko parlamentariak erregistroan sartutako mozioko erabaki proposamena. Hona: .

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du formalki eta al bait azkarren eska dezan Euromontana sarean sartzeari.”

Geroago, 2013ko ekainaren 20an, Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak kasuko parlamentu-batzordean adierazi zuen ezen, berak zekienaren arabera, Gobernuak ez zuela inolako zuzemenik egin Nafarroa Euromontana sarean sartzeko.

Sánchez de Muniáin jaunaren adierazpen horiek ikusita, parlamentari honek galdera bat egin zion kontseilari Esparza jaunari 2013ko uztailaren 4an, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak formalki noiz eskatuko zuen Euromontana sarean sartzeari.

2013ko irailaren 30ean –hau da, orain dela urtebete–, kontseilariak adierazi zuen Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentua harremanetan ibili zela Euromontanako lehenakarekin, eta une hartan baloratzen ari zirela Euromontanako kide izatearen onurak eta sinergiak nahiz betebeharrak. Eta bukatzeko, hau adierazi zuen: “Aurreikusita dago hemendik gutxira sare horretan sartzeko eskaria egitea”.

Jada urtebete joan da harrezkero. “Hemendik gutxira” kontzeptua nekez ezkon liteke horrekin. Hori dela eta, galderak berdina izaten jarraitzen du:

• Nafarroako Gobernuak formalki noiz eskatuko du Euromontana Sarean sartzeari?

Iruñean, 2014ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

## **Galdera, Nafarroako Parlamentuaren 2014ko ekainaren 27ko Osoko Bilkuran jantokirako beka direla-eta zenbait neurri eta ekintza ezartzeari buruz onetsitako erabakien betetze mailari buruzkoa.**

### *BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Parlamentuaren 2014ko ekainaren 27ko Osoko Bilkuran jantokirako beka direla-eta zenbait neurri eta ekintza ezartzeari buruz onetsitako erabakien betetze mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2014ko ekainaren 27an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zen: Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen eta eskertzen du "Gosariak" proiektua bultzatu dutenen lana, eta Nafarroako Gobernuak premiatzen du hartu beharreko neurriak har ditzan jantokirako beka emateko.

Halatan, 2014ko ekainaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako honako erabaki hauek onetsi ziren:

"1. Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen eta eskertzen du "Gosariak" proiektuaren bultzatzaileak egiten ari diren lana, eta uste du administrazio publikoei dagokiela ikasleen oinarriko beharrezkoak asetzeko behar diren baliabideak detektatzea eta taxutzea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du ekinean egin dezan eskolako jantokirako beka aurreikuspena, irailean ordainduko direla bermatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du behar diren neurriak har ditzan, udaletan jantokirako beka emateko irizpideak batera daitezten.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du familiek ordaindu behar duten gutxieneko kuota jaitz dezan, egiaztatuta baitago zenbait neska-mutikok ez dutela jantoki zerbitzurik erabiltzen beren familiek ezin dutelako gutxieneko kuota ordaindu, nahiz eta beka bat eduki.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du behar diren neurriak taxutu ditzan, jantokirako beka ekaineko eta irailako eskolaldi trinkoak ere har ditzaten, eta ez soilik eskolaldi zatituko egunak, bai eta ikasturteko asteazken guztiak ere.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Hezkuntza Departamentuko Prestakuntzaren eta Kalitatearen Atalaren "Fruten Programa" egokitu dezan, halako moduan non hiru egunetik bost eguneko izatera igaroko baita, ikasturte osoan eginen baita eta Lehen Hezkuntzara hedatuko baita.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du udalekin koordina dadin eta tresna egokiak ezar ditzan udako oportetako hila-beteetan adingabeen beharrezkoak asetzeko; gutxienez ere "Gosariak" programan parte hartu duten 146 neska-mutikoenak. Horretarako, ekimenaren bultzatzaileekin harremanetan jarriko da lehenbailehen."

Ahozko galdera:

Zein da Nafarroako Parlamentuaren 2014ko ekainaren 27ko Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuak jantokirako beka direla-eta zenbait neurri eta ekintza ezartzera premiatzeko onetsitako 2., 3., 4., 5., 6. eta 7. erabakien betetze maila?

Iruñean, 2014ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran



## **Galdera, Goi Erriberan eta Tuterako Erriberan enplegua sortzeko neurri berriak garatzeari buruzkoa.**

### *BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, Goi Erriberan eta Tuterako Erriberan enplegua sortzeko neurri berriak garatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Berdintasun eta Gizarteratze Gaiei buruzko Ikerketaren

Katedrak orain dela gutxi eman du ezagutzera gizarte bazterketari buruz egindako txostena.

Txosten horretako egoerarik adierazgarri eta nabarmenenetako bat Goi Erriberan eta Tuterako Erriberan gertatzen da, ezberdintasun sozial oso handian gertatzen baitaude han Nafarroako beste eskualde batzuetakoekin konparatuta, sustraiak egoera sozioekonomiko zeharo oker eta urteetan zehar enkistatu batean dituztenak.

Enplegua da, zalantzarik gabe, gizarte bazterketaren eta gizarte ezberdintasunen aurka borrokatzeko tresnarik garrantzitsuenetako bat, eta gizarte- nahiz lurralde-kohesio handiago bat lortzen laguntzen du. Hori dela-eta, honako galdera hau aurkeztu dugu, ahoz erantzuteko:

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Berdintasun eta Gizarteratze Gaiei buruzko Ikerketaren Katedraren datuak ezagutu ondoren, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak neurri berriren bat hartuko al du Goi Erriberan eta Tuterako Erriberan enplegua sortzeko?

Iruñean, 2014ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

## **Galdera, Barne Zuzendaritza Nagusiak Foruzaingoko zenbait brigada edo unitate berregituratzeko asmoa izateari buruzkoa.**

*ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako galdera, Barne Zuzendaritza Nagusiak Foruzaingoko zenbait brigada edo unitate berregituratzeko asmoa izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Lehendakari, Justizia eta Barne Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Egia al da Barne Zuzendaritza Nagusiak Foruzaingoko zenbait brigada edo unitate berregituratu dituela? Zehazki, egia al da Osasunaren aurkako delituen Brigada deseginen dela? Baiezkoan, erabaki horren arrazoi zehatzak ezaugu nahi ditugu. Ezezkoan, beste edozein brigadatan aldaketarik aurreikusi ote den azaltzea nahi dugu; zehazki, adingabeei laguntzeko eta genero indarkeria artatzeko zerbitzuan.

Iruñean, 2014ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

## **Galdera, uholde-arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari dagokienez Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onetsitako zuzentaraua betetze aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.**

*VICTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Victor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, uholde-arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari dagokienez Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onetsitako zuzentaraua betetze aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko organo eskudunari, idatziz erantzun diezaion:

- Nafarroako Gobernuak zer neurri hartu ditu uholde-arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari dagokienez Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onetsitako 2007ko urriaren 23ko 2007/60/CE Zuzentaraua betetze aldera?

Iruñean, 2014ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

## **Galdera, Nafarroaren errealitate instituzionala ez errespetatzeagatik Hezkuntza Departamentuak erretiratutako liburuen eta ukituriko ikastetxe edo institutuen zerrenda eskatzekoa.**

*AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Nafarroaren errealitate instituzionala ez errespetatzeagatik Hezkuntza Departamentuak erretiratutako liburuen eta ukituriko ikastetxe edo institutuen zerrenda eskatzekoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

– Nafarroaren errealitate instituzionala ez errespetatzeagatik Hezkuntza Departamentuak erretiratutako 22 liburuen zerrenda, izenburua eta argialetxea barne, bai eta liburuak erretiratu diren ikastetxe edo institutuena ere.

Iruñean, 2014ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak Estatuaren 2015erako aurrekontuen proiektua dela-eta egiten duen balorazioari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Estatuaren 2015erako aurrekontuen proiektua dela-eta egiten duen balorazioari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Estatuaren 2015erako aurrekontuen proiektua, irailaren 30ean aurkeztua, dela-eta?

Iruñean, 2014ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro